

Garabide Elkarte eta lankidetzaren linguistiko identitarioa: ibilbide xumea

**Andoni Barreña, Jon Sarasua, Kepa Matxain, Viviana
González, Iñaki González, Aldegundo González,
Joanes Igeregi eta Ander Bolibar**

Garabide Elkarte

garabide@garabide.org

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data: 2013-10-30

Laburpena. *Garabide Elkartearen* ikuspegitik herri batek garapenerako lankidetzan egin behar duen ariketa nagusia hegoaldeko herriekin parteka ditzakeen esperientzia eta prozesu funtsezkoetan zubiak sortzea da. Euskal Herriak badu herri bezala partekatzeko esperientzia oso indartsua, eta herri indigenen eskuetan jarriz gero, hainbat hizkuntza gutxituren biziberritze bideak eta estrategiak indartzeko baliotsua izan daiteke. *Garabide Elkarteak* beraz, identitate kultural eta linguistikoaren biziberritzean eragitea du helburu, subjektu indigenaren laguntza eta babes prozesuak garatuz. Artikulu honetan elkarrearen pentsamenduaren berri emateaz gain, gaur egun lantzen ari den hainbat proiektuen berri eman du, hala nola, Guatemalako Kaqchikel komunitatean, Mexikoko Nahuatl herrian, edota Kolonbiako Nasa herriarekin egiten ari direnak. • **Hitz-gakoak:** nazioarteko garapen lankidetzaren, hizkuntza biziberritzea, hizkuntza identitatea.

Abstract. From the perspective of the *Garabide Association*, the main task that a country has to carry out in collaboration for development is to build bridges in the essential experiences and processes that it could share with the countries of the south. The Basque Country has very broad experience in sharing as a country, and when this is put into the hands of indigenous peoples, it can prove valuable in strengthening ways and strategies to revive many minority languages. So the *Garabide Association* aims to encourage the revival of cultural and language identity by developing processes to assist and protect the indigenous subject. This article not only reports on the association's line of thinking, it provides information on a number of projects currently being developed, like the ones being implemented in the Kaqchikel community in Guatemala, with the Nahuatl people in Mexico, and with the Nasa people of Colombia. • **Key words:** collaboration in international development, language revival, language identity.

Garabide Elkartea 2005ean sortzen da Eskoriatzan garapenerako lankidetzak izan ditzakeen zenbait hutsune identifikatu ostean eta lan ikuspegi ustez berritzailea abian jartzeko asmoarekin.

Ikuspegi honetatik, herri batek garapenerako lankidetzan egin behar duen ariketa nagusia ez da dirua proiektuetan banatzea. Beste hau baizik: herri moduan hegoaldeko herriekin parteka ditzakeen esperientzia eta prozesu funtsezkoetan zubiak sortzea.

Garabide Elkartea egiten duen analisisan Euskal Herriak badu herri bezala partekatzeko esperientzia esanguratsua, herri eraikuntza eta nortasunaren garapenean hizkuntza eta kulturaren biziberritze eta indartze prozesua hain zuzen ere, eta herri indigenen eskuetan jarriz gero, hainbat hizkuntza gutxituren biziberritze bideak eta estrategiak indartzeko baliotsua izan daitekeela uste da.

Garabide Elkartea bere gain hartua duen lankidetzaren ildoak identitate kultural eta linguistikoaren biziberritzean eragitea du helburu, subjektu indigenaren laguntza eta babes prozesuak garatuz.

Lan horren ikuspegi estrategiko eta metodologiko nagusia euskalgintzaren esperientzia modu eraginkor batean hizkuntza gutxituetako eragileen eskura jartzea da: hegoaldeko garapen prozesuari dagokien sektore edo arlo zehatzeko euskal eragilerik egokien lankidetzaren lortzea. Hezkuntza sareak, korpua garatzeko erakundeak, estrategia mailako eragileak, hedabideak, kulturagintzako erakundeak, euskal unibertsitate esperientziak, eta era horretako gaineko eragileak dira ildo honetarako lankide, hau da, euskararen garapenari eusten dion erakunde, enpresa eta elkarte sarea.

Beraz, *Garabide Elkartea*ren helburu nagusia euskararen biziberritzearen inguruan esparru ezberdinetan (sozialean, kulturean, administrazioan, hezkuntzan, ...) lanean diharduten eragile ezberdinak elkartzea da eta hauen eta hegoaldean beraien hizkuntzak biziberritzeko ahaleginean diharduten eragileen artean zubiak eraikitzea, giza eskubideen eta genero ikuspegi batetik tokian tokiko subjektu indigenen indartzea bultzatuz. Prozesua eta erlazioa bi noranzkokoak da noski, euskal eragileak egoera eta borroka indigenen inguruan sentsibilizatuz eta hemengo errealitatea ulertzeko eta hausnartzeko gaitasunak landuz eta zabalduz.

Lan hau gauzatzeko gaur egun norbanako bazkideez eta euskalgintzako erakunde laguntzaileez sare zabala eratu du *Garabide Elkartea*. Erakunde laguntzaileon artean, besteak beste *Ikastolen Elkartea*, *Berria*, *Argia*, *Euskaltzaindia*, *Elhuyar Fundazioa*, *Kontseilua* edo *Soziolinguistika Klusterra* daude. *Mondragon Unibertsitateak* bere aldetik babesa eta sostengua ematen dio *Garabide Elkartea* egiten duen lanari, batetik, maila

***Euskal Herriak
badu herri bezala
partekatzeko
esperientzia
esanguratsua,
herri eraikuntza
eta nortasunaren
garapenean
hizkuntza eta
kulturaren
biziberritze eta
indartze
prozesua.***

**Prozesua eta
erlazioa bi
noranzkoko da
noski, euskal
eragileak egoera
eta borroka
indigenen
inguruan
sentsibilizatuz
eta hemengo
errealitatea
ulertzeko eta
hausnartzeko
gaitasunak
landuz eta
zabalduz.**

akademiko eta zientifikoan eta, bestetik, elkarteak bideratzen dituen proiektuetan modu aktiboan parte hartuz bere *Hizkuntza Departamentutik* eta *Lanki Ikertegitik*. *Humanitate eta Heziketa Zientzien Fakultatearekin* - HUIHEZI- lan hitzarmena du *Garabide Elkarreak*.

LAN ILDOAK

Garabide Elkartea bere estrategiak garatzeko lan ildo ezberdinak jorratzen ari da, ondokoetan laburbil daitezkeenak:

1. Euskalgintzaren esperientziaren ikerketa eta sistematizazioa, eta beraren zabalkunde didaktikoa.
2. *Esperientzien elkartruke* programa eta *Hizkuntzak biziberritzeko estrategiak* graduondoa.
3. Tokian tokiko laguntza, formazio eta prestakuntza egitasmoak.

EUSKALGINTZAREN ESPERIENTZIAREN IKERKETA ETA SISTEMATIZAZIOA

Euskalgintzaren esperientziaren ikerketa eta sistematizazioa da *Garabide Elkarteen* eginkizun nagusienetakoa. *Garabide Elkarreak* tokian tokiko hizkuntzen biziberritze prozesuak laguntzeko eta indartzeko asmoz euskal esperientzia estrategikoki sistematizatzen duten lan tresna pedagogikoak garatzeko helburua du, liburuxka eta ikus-entzunezko ezberdinetan zehazten den asmoa.

Dagoeneko lau dira argitaratu diren sistematizazio liburuxkak eta ikus-entzunezkoak:

— *Lehena Euskararen berreskuratzea: hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk* izenekoa, 2009an egina eta 2010ean argitaratua. Lan hau euskaraz, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta bretoieraz argitaratu da. Azpimarratzekoa da lehen lan honek izan duen onarpen eta arrakasta. Bere lehen aurkezpena New Yorken burutu zen, urtero *Nazio Batuen Erakundeak* antolatzen duen *Indigenen Foro Iraunkor*rean eta harrera oso ona jaso zuen erakunde indigenen aldetik. Lan honek hiru atal nagusi ditu: lehenean, hizkuntzen biziberritzerako marko orokorra aztertzen da, soziolinguistikaren eta hizkuntza ekologiararen oinarrietatik abiatuta; bigarrean, euskararen biziberritze prozesuaren bereizgarri nagusiak biltzen dira, eta, hirugarrenean,

euskararen biziberritzearen gako nagusiak aztertzeaz gain, zenbait mezu plazaratzen dira hizkuntza gutxituetako eragileentzat zein munduko herritar guztientzat.

— Bigarren argitalpena, 2010ekoa, *Euskararen Estandarizazioa* izan da. Lan hau lau hizkuntzatan agertu da: euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, zabalkundea oinarritzko helburua baita. Lan honetan estandarren beharraz, euskara batuaren bide luzeaz, 1968ko erabakiaren hurrengo urratsez, euskalkien betebeharez eta prozesuaren ondorioez hausnarketa egiten da. Liburuaren amaieran estandarizaziorako gomendio batzuk biltzen dira. Liburu guztiak bezala, dokumental batek osatzen du material hau.

— Hirugarren alea *Hedabideak* da, 2011an argitaratua. Liburu honetan hedabideek gizartean duten garrantzia eta papera aztertzen hasten da, ondoren euskal prentsa idatziaren historiari eta, ikus entzunezkoei eta interneti lotuz. Amaieran, zenbait gako biltzen dira, prozesua ulertzeko baliagarriak direnak.

— Laugarren alea 2013an jarri da *Garabide Elkarteen* web gunean, *Hezkuntza* du titulua eta aurrekoan bezala lau hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz. Hezkuntzaren garrantziaz, nazioarteko legediaz, irakaskuntzaren egoeraz, euskal eskolarantzko urratsez, curriculumaz eta eleaniztasunaz dihardu liburuak, amaieran irakaskuntza eredua nola eratu azaltzen duela.

Ikerketa eta sistematizazio ildo honen ardura nagusia Alberto Barandiaranena izan da, bera izan baita testu gehien idazlea. Halere, euskalgintzako eta hizkuntza gutxitutako biziberritze prozesuetan diharduten hainbat eragile ari izan dira egindako hausnarketa aberasten, hala nola, Jon Sarasua, Urko Kolomo, Amaia Antero, Iñigo Iñurrategi, Andoni Mujika, Jose Anjel Aldai, Julen Arexolaleiba, Joseba Intxausti, Dionisio Amundarain, Xamar, Lore Erriondo, Joserra Gartzia, Edurne Alegria, Maite Jaio, Miren Azkarate, Andoni Barreña, Paula Kasares, Xabier Kintana, Leire Uriarte, Bea Zabalondo, Koldo Zuazo, Lorea Agirre, Elixabete Garmendia, Xabier Letona, Aitor Zuberogoitia, Miren Artetxe, Kristina Boan, Itziar Elortza, Xabier Garagorri, Eneritz Garro, Aldegundo Gonzalez, Iñaki Gonzalez, Viviana González, Itziar Idiazabal, Ibon Manterola, Arantza Munduate, Inma Munoa, Gualberto Quispe, Uri Ruiz Bikandi, Pili Sagasta, Matilde Sainz, Pablo Suberbiola eta Cesar Telegario.

Lan honek hiru atal nagusi ditu: lehenean, hizkuntzen biziberritzerako marko orokorra aztertzen da, soziolinguistikaren eta hizkuntza ekologiarenekin oinarrietatik abiatuta; bigarrean, euskararen biziberritze prozesuaren bereizgarri nagusiak biltzen dira, eta, hirugarrenean, euskararen biziberritzearen gako nagusiak aztertzeaz gain, hiru mezu plazaratzen dira hizkuntza gutxituetako eragileentzat zein munduko herritar guztientzat.

**Esperientzia
linguistiko
identitarioen
elkartruke
programa.**

**Honen ardatza
hegoaldeko
herrialde
ezberdinetako
eragile indigenak
Euskal Herrian
hilabeteko
prestakuntza eta
trukaketa
trinkoa bizitzea
da, beraien lan
estrategiak
partekatze,
hobetzeko nahiz
berriak sortzeko
eta hemengo
eragileen parte
hartze aktiboa
eta
sentsibilizazioa
bultzatzeko.**

ESPERIENTZIEN ELKARTRUKE PROGRAMA ETA HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO ESTRATEGIAK GRADUONDOA

I

Bestalde, Garabide Elkarlea 2007tik aurrera urtero garatzen du *Esperientzia linguistiko identitarioen elkartruke programa*.

Programa honen ardatza hegoaldeko herrialde ezberdinetako eragile indigenak Euskal Herrian hilabeteko prestakuntza eta trukaketa trinkoa bizitzea da, beraien lan estrategiak partekatze, hobetzeko nahiz berriak sortzeko eta hemengo eragileen parte hartze aktiboa eta sentsibilizazioa bultzatzeko.

Egin diren bost edizioetan zehar Guatemala, Bolibia, Ekuador, Kolonbia, Txile eta Mexikoko erakunde eta instituzio indigenetako ordezkariak izan dira Eskoriatzan garatzen den ekimen honetan, guztira 28 erakunde indigenetako ordezkariak bertaratu direlarik (50 lagun inguru guztira).

Esperientzia linguistiko identitarioen elkartruke programa honen garapena legez, 2011n Hizkuntzak biziberritzeko estrategiak deritzan graduondoa abian jarri da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Heziketa Zientzien Fakultatearekin batera. Graduondo honek bi edizio izan ditu, 2011n eta 2013an, lehenengoan 18 lagunek hartu zuten parte (kitxua, aimara, maputxe, maia kaqchikel eta yukateko, nahuatl eta nasa herrietakoak), eta bigarrenean 14k (kitxua, aimara, maia kaqchikel eta yukateko, nahuatl, nasa, kurdo eta amazigh herrietakoak).

Trukera zein graduondora datozen ekintzaileak *Garabide Elkarlearekin* harremanak dituzten erakunde aliatu estrategikoek aukeratzen dituzte, kontuan izanik beraien atxikimendua eta inplikazioa jatorrizko hizkuntzaren biziberritze zereginetan.

Hizkuntzak biziberritzeko estrategiak graduondoa 12 astetan zehar gauzatzen da, eta helburu nagusiak bi dira: esperientzien elkartrukea eta euskarak bizi izan duen biziberritze prozesua era sistematikoan, kritikoa eta sakonean aztertzea.

Horretarako, graduondoa sarrera batek, hiru blokek eta amaierako proiektuak osatzen dute. Sarreran, Euskal Herriaren eta parte hartzen duten lagunen herrien aurkezpena egiten da, graduondoaren aurkezpenaz gain.

Lehenengo blokea jatorrizko hizkuntzen biziberritzerako oinarriak aztertze marko teorikoa lantzekoa da. Euskal Herrian, eta mundu zabalean, azkeneko 50 urteetan, soziolinguistikatik eta hizkuntzen ekologiatik abiatuta, hizkuntza aniztasunaren balioaz eta beharraz, hizkuntza galeraren prozesuaz eta arrazoiez eta hizkuntza gutxituetako biziberritze

prozesuak bideratzeko neurriez eta baliabidez esperientzia eta jakituria metatu da, eta hau guztiaz aritzeko eratu da bloke hau.

Bigarren blokean jatorrizko hizkuntzak biziberritzeko estrategiak lantzen dira. Bloke hau hainbat ataletan bereizten da: corpusa garatzeko estrategiak, hizkuntza transmisiorako estrategiak, hezkuntza garatzeko estrategiak, hedabideak garatzeko estrategiak, kultura ekoizpenaren arloko estrategiak, gizarte ekintzaren arloko estrategiak, lan munduko estrategiak, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen arloko estrategiak eta gizarte eragileak.

Hirugarren blokean biziberritzeko prozesuetako metodologiak, lanabesak eta baliabideak aztertzen dira. Bloke honen baitan hiru atal bereizten dira: hizkuntza politika eta planifikazioa, jatorrizko hizkuntzetako hiztunen jokaeraren azterketa (TELP, *Taller d'espai linguistic personal*) eta gizarte elkarten gestio tresnak.

Aipatutako blokeez gain, partaide bakoitzak proiektua garatu behar du, bere komunitatean gauzagarria izan daitekeena eta bere hizkuntzaren biziberritze prozesuan aurrerapausoa izan daitekeena. Proiektu honen garrantziaz jabeturik, *Garabide Elkarteak* berorren jarraipena egiten du ondorengo urteetan.

TOKIAN TOKIKO LAGUNTZA, FORMAZIO ETA PRESTAKUNTZA EGITASMOAK

I

Urte hauetan hainbat izan dira *Garabide Elkarteak* lagundu eta sustatu dituen tokian tokiko egitasmoak. Une honetara arte honakoak izan dira modu batera edo bestera ukitu ditugun eta ukitu gaituzten herriak: kitxua-ketxuak (Ekuador eta Bolivian), aimarak (Bolibian), guaraniak (Paraguai eta Bolivian), nasak (Kolonbian), kaqhikelak (Guatemalan), maia yukatekoak (Mexikon), nahuatlak (Mexikon), kurduak (Turkian), amazighak (Libian), maputxeak (Txilen). Oro har, tamaina aldetik masa kritiko aipagarria duten hiztun komunitateak dira, eta nolabait hizkuntza biziberritzeko prozesuetan hasita daudenak.

Horietako batzuen kasuan hainbat erakunde, zubi, proiektu eta esperientzia aipa ditzakegu, egindako ibilbidea azaltze aldera. Beste batzuekin kontaktu laburragoa izan dugu. Dena dela, guztiak aipatzeak luze joko lukeenez idazlan honetan une honetan abian dauden hiru prozesuren kasuak aipatuko ditugu: kaqhikel, nahuatl, eta nasa komunitatekoak. Orain arteko elkarlanik zabalena kitxua komunitate hedatuarekin izan dugu, baina azalpenaren konplexutasunagatik, artikulua honetatik kanpo utziko dugu kasu hau.

**Garabide
Elkarteak
2010ean abiatu
du kaqhikel
herriarekiko
egitasmoa,
Kaqhikel
hizkuntza eta
identitatea
biziberritzeko
eskola sare baten
eraketa.**

**Tosepanekoek
abian jarri dute
Kalnemachtilyan
eskolan
murgilketa
eredua eta eskola
materiala sortzen
ari dira.**

Kaqchikel komunitatea

Kaqchikel komunitatea Guatemalan bizi da eta maia herriaren parte da. *Guatemalako Maia Hizkuntzen Akademiaren* (ALMG) arabera 22 dira bertako maia hizkuntzak; horiez gain Mexikon eta Belizen ere badira maia komunitate gehiago.

Garabide Elkarreak 2010ean abiatu du kaqchikel herriarekiko egitasmoa, Kaqchikel hizkuntza eta identitatea biziberritzeko eskola sare baten eraketa, alegia.

Kontuan izanik kaqchikelen eremuko eskola elebidunetan jatorrizko hizkuntzaren presentzia eskolan astero 2 edo 3 ordotara mugatzen dela, eta hizkuntza galtzen ari dela ikusirik, Kaqchikel ekintzaile talde batek eginkizun berezia hartu zuen bere gain, *Ruk'u'x qatinamiit* egitasmoa abiaraztea, eskola mundua jatorrizko hizkuntzara lerrokatzeko.

Egitasmoan ondoko lau eskolak lotu zitzaizkion: *Ixmukane'*, *K'astajib'äl*, *Maya aj sya'* eta *Nimaläj kaqchikel amaq'*. Lau eskolak hirikoak dira eta bertan ari diren ume eta gazte gehienek ez dakite kaqchikelez, ez baita kaqchikela euren lehen hizkuntza. Lau eskoletatik 3 elkarte indigenek sortu dituzte, eta hasiera-hasieratik izan dute helburutzat hizkuntza eta kultura berreskuratzea, indartzea eta lantzea. Laugarren eskola, familia baten jabegoa izan arren, bide beretik abiatu berri da. Laugarren eskola honetan kaqchikela Arte eta Gorputz-Hezkuntza irakasgaien hizkuntza da 2011tik. Gainerako 3 eskoletan kaqchikela H2 legez baino ez da irakasten.

Ruk'u'x qatinamiit egitasmoaren ezaugarriak nabarmenenak ondokoak dira:

- kaqchikel hizkuntzaren ezagutzaren diagnostia egitea, ikasleena zein irakasleena; baita kaqchikel hizkuntza eta kultura irakasteko irakasleen prestakuntza pedagogikoarena eta hizkuntzari buruz dituzten sinesmenena ere;
- guraso, irakasle eta ikasleei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina;
- irakasleen prestakuntza pedagogikoa;
- kaqchikel hizkuntzan atondutako materiala egitea (2012ko otsailean bazituzten 18 unitate didaktiko garatuta, eta beste 22 egin dituzte 2012an zehar, horrela bi urteko eskolaldia bete ahal izango dutelarik;
- hizkuntza eta hezkuntza ereduaren garapena;
- herri bakoitzean kaqchikel hizkuntzaren eta kulturaren aldeko jaialdiak eratzea;
- beste jatorrizko hizkuntzetan eginiko material aukeratuen itzulpena (ipuinak, jokoak, abestiak, eta abar);

- zerrendatutako zereginak burutu ahal izateko diru laguntzen bilaketa;
- eskoletako zuzendari, irakasle eta gurasoekin euskararen esperientzia partekatzeko saioak.

Egitasmo honi laguntzen eta aholkatzen ari da *Garabide Elkartea* 2011tik, *Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen* laguntzarekin. Horretarako bi urtez ordainpeko ekintzaile bat izan da bertan 2013ko udazkenera arte eta hainbat irakasle ikasketetako ikasleen praktika aldiak gauzatu dira bertan.

Ruk'u'x qatinamit egitasmoaren arduradunek eta *Garabide Elkarreak* 2014an eta hurrengo urteetan elkarrekin lanean jarraitzeko asmoa dute.

Nahuatl herria

Nahuatl herria Mexikon zehar hedatzen da eta bertoko hiztun kopuru handiena duen jatorrizko hizkuntza da, milioi batetik gorakoa, hain zuzen.

Garabide Elkarrearen egitasmoa Puebla Estatuko *Union de Cooperativas Tosepan* elkarrearekin da.

Tosepan kooperatibetan nahuatlak beraien eta bazkideen eginkizunetan duen erabileraren inguruko hausnarketa egiten ari dira, eta, dagoeneko, hainbat eginkizun abian jarri dituzte, esaterako, *Kalnemachtiloyan* eskola kooperatibako hizkuntza proiektua indartzea.

Tosepaneko arduradunek eta *Garabide Elkarrekoek* 2012an ondoko eginkizunetan elkarrekin lanean aritzea adostu zuten:

- bi herrien hizkuntza esperientziak partekatu berauek biziberritzeko aukeren inguruan hausnartzeko;
- *Tosepan Kooperatibetan* nahuatl hizkuntzaren presentziak eta erabilerak izan duen bilakaera aztertu eta honen norantza definitu;
- *Tosepan Kalnemachtiloyan* eskolan nahuatlak duen errealitate linguistikoa irakasle eta arduradunekin aztertu eta ikastetxe osorako hizkuntza proiektuaren oinarriak definitu;
- *Tosepan Kalnemachtiloyan* eskolan nahuatlak duen ikaste-irakaste prozesuen hausnarketa eta hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko formazioa irakasle eta arduradunekin;
- euskararen bilakaeraren esperientzian oinarrituta nahuatlaren egoeraren azterketa gauzatu, irakasle eta kooperatibetako buruekin formazio saio ezberdinetan;

Andoni Barreña, Jon Sarasua, Kepa Matxain, Viviana González, Iñaki González, Aldegundo González, Joanes Igeregi eta Ander Bolibar – Garabide Elkartea eta lankidetzaren linguistiko identitarioa: ibilbide xumea

Asko dira Euskal Herriaren atea josten duten herri gutxituetako eragileak euren hizkuntza eta kultura galduz doazela ikusten dutelako, euskararen biziberritzeaz dakitenak erakarrita.

- ikastetxe bateko hizkuntza proiektuak izan behar dituen oinarriak aztertu, eta *Tosepan Kalnemachtilyan* eskolako hizkuntza proiektuaren zirriborroa egin irakasle eta arduradunekin tailer ezberdinetan;
- haur hezkuntza eta lehen hezkuntzarako hizkuntza irakasteko material didaktiko ezberdinak aztertu, materiala sortu eta praktikara eramateko tailerrak gauzatu;
- kooperatibako arduradunekin bilera ezberdinak eskolan bultzatu nahi den hizkuntza eredia adosteko.

Tosepanekoe abian jarri dute *Kalnemachtilyan* eskolan murgilketa eredia eta eskola materiala sortzen ari dira, baina 2014rako, eginkizun horietan jarraitzeaz eta sakontzeaz gain, eginkizun berriei ere lotu zaizkie datozen urteetarako, eta horietan ere laguntza eskatzen digute euskaldunei. Hauexek dira eginkizun berrietako zenbait:

- eskualdeko idazkeraren estandarizazioa, aldaerarena, alegia;
- hiztegiaren bilketa; dagoeneko 7.800 sarrera jaso dituzte;
- gramatikaren egituratzea eta idazketa;
- eskolako curriculum aurreratzea eta ezartzea;
- alfabetatzerako metodologia diseinatzea;
- jatorrizko hizkuntzan hedabideak garatzea, bereziki *Radio Tosepan-Limakxtum* deritzanean.

Nasa herria

Nasa herria Kolonbiako jatorrizko herrietako bat da, batez ere Andeetan bizi dena. Ezaguna da Cauca Departamentuan 70eko hamarkadan CRIC (*Consejo Regional Indígena del Cauca*) izeneko erakunde entzutetsua sortu zuelako bertako beste zenbait herrirekin batera (yanakonak, eperak, ingak, guanbiarrak, eta abar), zeinek indigenen eskubideen eta lurren berreskurapenaren alde borroka latza eta luzea zuzendu duen.

Garabide Elkartea direla hiruzpalau urte harremanak sendotu zituen CRICen barruko zenbait eskualde erakunderekin, hala nola, Iparraldeko ACIN-*Çxhab Wala Kiwe*, Reasentamientoseko *Nasa Ûus* eta Tierradentroko *Asociación de Cabildos Indígenas Nasa Cxhãcxha* eta *Asociación de Cabildos Juan Tama* erakundeekin.

Erakunde horiek guztiek hausnarketa prozesuan murgildu dira azkeneko urteetan euren jatorrizko hizkuntza (*nasa yuwea*) eta kulturaren galera etengabea eta larria ikusirik. Hausnarketaren ondorioetako bat jatorrizko hizkuntzaren aldeko ekimen garrantzitsuak eratzea izan da, eta ekimenak zuzenduko dituzten talde bereziak sortzea.

Andoni Barreña, Jon Sarasua, Kepa Matxain, Viviana González, Itziar González, Aldegundo González, Joanes Igeregi eta Ander Bolibar – Garabide Elkartea eta lankidetzako linguistiko identitarioa: ibilbide xumea

CRIC erakundeak sortzeaz batera aldarrikatu zuen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak jagon eta sustatu beharra, baina orain dela 40 urte hartutako neurriak ez direla eraginkorrak, izan ikusi dute. Eskola sistema propioa kudeatu duten arren, jatorrizko hizkuntzak astero 4 orduko presentzia baino ez du. Irratiak izan arren, gutxi dira jatorrizko hizkuntzan eginiko saioak. Webguneak izan arren gaztelania da hizkuntza ia bakarra. Erakundeen jarduera eta asanbladetakozko hizkuntza nagusia, salbuespenak salbuespen, gaztelania da.

Nasa yuwea egoera oso larrian eta atzeraka ari dela oharturik, ACIN-Çxhab Wala Kiwe erakundearen Herria, kultura eta hezkuntza ehunak, esaterako, Nasa Yuwe Atpu'cxsa'we'sx (nasa yuwe sustatzaileak) taldea sortu du 2011n, herritarren sentiberatasunari eragiteko eta jatorrizko hizkuntzaren aldeko jarrerak lantzeko eta sendotzeko. Gaur egun, 40 lagunek osatzen dute taldea. Nasa yuwea herri, eskualde, nazio eta nazioarte mailan sustatzen ari dira. Biziberritze prozesua izpiritualtasunetik zuzentzen da eta taldearen lehenetarikoko ekimena hizkuntzaren egoeraren autodiagnostikoa egitea izan da, familiak, eskolak eta herriak bisitatuz eta behatuz. Nasa yuwe eskolak ere sortu dituzte, hizkuntza irakasteko eta alfabetatzeko, eta metodologia beregainak lantzeko eginkizun horietan. Lexikoaren berrikuntzan ere jarduten dute, zaharkitutako hitzak biziberritzen eta berriak sortzen, nagusiekin batera.

Aipagarria da 2013an Luuçx Lesxkwe izeneko egitasmoa jarri dutela abian, haur hezkuntza nasa yuwez gauzatzen duen eskola pilotua, alegia.

Iparraldeko ACIN-Çxhab Wala Kiwe erakundea aitzindaria den arren, Reasantamientosekoa eta Tierradentrokoak ere badituzte ekimen interesgarriak.

Halere, metodologia kontuetan laguntza behar dutela ondorioztatu dute, eta *Garabide Elkarteari* eskatu diote Euskal Herriak metatu duen esperientzia ezagutzeko eta, batez ere, baliabide metodologikoak partekatzeko, hots, euren prestakuntza prozesuan eragiteko.

Garabide Elkartea 2011n hartu zuen erronka, eta 2013an gauzatu ditu lehen urratsak tokian tokiko egitasmoa gauzatzeko: lau ikastaro antolatu ditu uztailean eta abuztuan *Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren* eta *Durangoko Udalaren* laguntzaz. Ikastaroak eskola materiala sortzeaz eta haur hezkuntzako metodologiaz izan dira, eta balorazio ezin hobea izan dute, bai nasa yuwe sustatzaileen, irakasleen eta ama laguntzaileen aldetik, zein Euskal Herritik bertara joandako irakasleengandik.

Badago 2014rako egitasmo zehatzik ere, nasa yuwearen biziberritzearen bidean estrategiak eraikitzeko eta bitartekoak zehazteko:

Garrantzitsua da gure hainbat sektore eginkizun honekin jabetzea, herritarrek, garapenerako lankidetzako taldeak, euskalgintzako elkarte eragileak eta erakunde publikoak.

Aipagarria da 2013an Luuçx Lesxkwe izeneko egitasmoa jarri dutela abian, haur hezkuntza nasa yuwez gauzatzen duen eskola pilotua.

**Munduko
hizkuntza
aniztasunaren
ondarea gorde
eta garatu
berraz
sentiberatasuna
sustatu nahi du
Garabide
Elkarreak,
euskaldunok
besteengandik
ikasteko dugunaz
jabetu gaitzen.**

1. Nasa yuwearen biziberritzerako estrategiak izena izango duen lau urteko lizentziaturaren diseinuan aholkatzea eta laguntzea. Lizentziatura hau nasa yuwez izango da eta CRICEk sortu duen UAIIN (*Universidad Autónoma Indígena Intercultural*) unibertsitatearen babesean eratuko da.
2. Erakunde indigenek beraiek Caucako Iparraldean eginiko nasa yuwearen autodiagnostiko soziolinguistikoa Caucako eskualde guztietara hedatzen laguntzea.
3. Nasa yuwearen biziberritzerako eskola eta hizkuntza estrategien sendotzea deritzan egitasmoa burutzeko ondoko bost ikastaro irakastea, ikastaro bakoitza Caucako bi eskualdetan errepikatuko dena:
 - Hizkuntza ekologia eta soziolinguistika: jatorrizko hizkuntzaren biziberritzearen ikuspegi estrategikoa.
 - Haur hezkuntzaren eta lehen hezkuntzaren planifikazioa, murgilketaren bidetik.
 - Hizkuntzaren irakaskuntzaren didaktika, H1 zein H2 legez.
 - Ikas materialaren sortzea.
 - Helduentzako jatorrizko hizkuntzaren alfabetatzea eta irakaste metodologia.

AZKEN HITZAK

I

Egindakoa xumea da eta egiteke dagoena egundakoa. *Garabide Elkarreak* bide berri baten lehen harriak jarri ditu, Euskal Herriko eragile askoren laguntzari esker, baina egiteke dagoenak indar metatze handiagoa eskatzen du.

Asko dira Euskal Herriaren atea jotzen duten herri gutxituetako eragileak euren hizkuntza eta kultura galduz doazela ikusten dutelako, euskararen biziberritzeaz dakitenak liluraturik. Baina mugatuak dira *Garabide Elkarrearen* baliabideak eta aukerak, eta indar metatzea guztiz beharrezkoa da.

Garrantzitsua da gure herriko sektore guztiak eginkizun honekin jabetzea, herritarrak, garapenerako lankidetzako taldeak, euskalgintzako elkarte eragileak eta erakunde publikoak.

Haatik, Euskal Herriari begira zenbait ekimen abiatu ditu *Garabide Elkarreak*. Batetik, garapenerako lankidetzako eta euskalgintzako beste zenbait talderekin (*UNESCO Etxea*, *Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra*, *Soziolinguistika Klusterra*) sentiberatasun kanpainari ekin dio, garapenerako lankidetzaren lerro indartsu berri bat txertatzeko, Lankidetzaren linguistikoa eta identitarioa, hain zuzen. Horretarako, nazioarteko garapen lankidetzaren hizkuntza irizpidea txertatzeko propo-

*Andoni Barreña, Jon Sarasua, Kepa Matxain, Viviana González,
Iñaki González, Aldegundo González, Joanes Igeregi eta Ander Bolibar
– Garabide Elkarteak eta lankidetzak linguistiko identitarioak: ibilbide xumea*

samena adostu dute elkarte guztiek. (Belen Uranga 2013: UNESCO Etxea. Bilbo. www.garabide.org).

Bestetik, *Bidaide* izeneko programa berria egituratu du. Programa honen bidez, lau urteko epe batean, kontinente desberdinetako zenbait herri edo hiztun komunitaterekiko zubiak sendotuko ditu, formazio eta aholkularitza mailan. Lan honetan euskalgintzako eragileak partaide izatea eta Euskal Herriko udalak laguntzaile izatea planteatzen du egitasmoak. Bereziki, lehentasunezko zat jotzen diren nasa, nahuatl, kitxua eta kaqchikel herrietako egitasmoak, baina beste zenbait herrirenak ere ahortzi barik.

Azkenik, munduko hizkuntza aniztasunaren ondarea gorde eta garatu beharraz sentiberatasuna sustatu nahi du Euskal Herrian *Garabide Elkarteak*, euskaldunok besteengandik ikasteko dugunaz jabetu gaitezen. ●